



EBAZPENA, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2024ko ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetarako, unibertsitate-ikastetxeetarako eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeetarako dirulaguntzen zenbatekoa handitzen duena.

2023-2024ko ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten EAEko unibertsitateei, unibertsitate-ikastetxeei eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren 2. artikuluan ezartzen denez (2023ko azaroaren 14ko EHAA), agindu horretako laguntzen helburua betetzeko 2.200.000 euro ezarri ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura.

Bestetik, agindu horren 2.3. artikuluan ezartzen denez, dirulaguntza horiek finantzatzera bideratutako zenbatekoa handitu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako eskabideen kopuruak hala eskatzen badu, betiere aurrekontu-baliabideen arabera.

Hori guztia dela eta,

EBAZTEN DUT:

Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren 2. artikuluan (EHAA, 2024ko azaroaren 14koa) ezarritako zenbatekoa 464.800 euro handitzea; hain zuzen ere, 2.664.800 euro ezarriko dira guztira honako banaketa honekin:

- 1.036.160 euroko aurrekontua ezartzen da Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) emandako laguntzak osatzeko.
- 1.628.640 euroko aurrekontua ezartzen da Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) laguntzarik ez duten egonaldietarako.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Adolfo Morais Ezquerro
Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea

